



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2680/21_02

Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuen Lege Aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan otsailaren 3an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Segurtasun Saileko Arlo Juridikoak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, *xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua*, eta *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua* oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena abenduaren 21ekoa da eta azaroaren 26koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Dekretu Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela *abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua*. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.



Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna, helburu biak Euskal Sektore Publikoko erakundeen politika publikoen zehar-lerroak izanik, interesgarria iruditzen zaigu bataren eta bestearen tratamendua alderatzea.

Hori horrela, aztertzen ari garen Lege Aurreproiektuan aurkitu ditzakegun genero berdintasunari buruzko ezarpenak ereduagarriak iruditzen zaizkigu. Gaia oso landuta dago eta xedapenaren zenbait lekutan modu oso egokian islatzen da.

Aldiz, euskara, zein hizkuntza normalizazioa, ez dira aipatu ere egiten.

Hutsune hori betetzeko proposamen batzuk luzatu nahi dizkizuegu.

Lege Aurreproiektuaren 4. artikulua jarduteko printzipioei buruzkoa da, gomendagarria litzateke hizkuntza ofiziala hautatzeko herritarren eskubidearen bermea gehitzea; adibidez, bere c) azpiatala honela moldatuz:

4. artikulua.- Jarduteko printzipioak.

Jarduteko oinarrizko printzipio hauek izango dituzte suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuek:

*c) Egoerak behartuta edo hala eskatu zaielako herritarrei laguntza eta babesa eman behar dietenean, herritar horiekin errespetuz eta adeitasunez jokatzea **eta herritarrekin harremanetan jardun behar dutenean herritarren eskubidea hizkuntza ofiziala hautatzeko bermatzea eta hautatzen duten hizkuntzan artatzea.***

Lege Aurreproiektuaren 9. artikuluan Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetarako Erakundearteko Batzordea arautzen da; honela dio bere 4. azpiatalean:

9. artikulua.- Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetarako Erakundearteko Batzordea.

4.- Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetako Erakundearteko Batzordearen osieran gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatua bermatuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.b) eta 20.6 artikuluetan xedatutakoaren arabera. Batzordeak honako kide hauek izango ditu: (...)

Kasu honetan, Batzordearen osarari dagokionez ikusten dugu, eta egokia iruditzen zaigu, genero berdintasunaren aldagaia kontuan hartzen dela; aldiz, aurretik esan bezala, hizkuntza normalizazioari buruzko aurreikuspenik ez da jasotzen.

Batzordeko kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein gainerako kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak zaindu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea:

Batzordeko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea.

Halaber, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegitik gomendagarria izango litzateke beste testu hau ere jasotzea:

Batzordeko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Batzordeak horrela erabakitzen bada bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

Azkenik, II. Kapituluaren 3. Atala *Berdintasunaren Sustapenari* buruzkoa da.

Oso gomendagarria litzateke euskararen normalizazioari buruzko antzeko atal berri bat garatu eta txertatzea.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria